

## UNAI REMENTERIA MAIZ, BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA IZATEKO HAUTAGAIA

Hiru urte pasatxo hauetan, Unai Rementeriak (Mundaka, 1973-08-10) atzean utzi du hegaz egiteko beldurra, eta lortu egin du Bizkaia gorenera eramatea. “Erakutsi egin dugu Bizkaia mundiala dela”, esan du harrotasunez eta pozik, Bizkaiko ahaldun nagusi gisa egiten ari den bidai honetan, astelehen goizez, edozein beste astelehenetan bezala, atsedenditxoa egitean. Baina aste honetakoa ez da beste edozein astelehen izan. MTV sarien osteko astelehena izan da, Bizkaia osoa dantzan jarri duen astearen biharamun musikala. “Dantzan eta pozik. Neu ere pozarren nago horrenbeste pertsona pozik ikusteagatik”, esan du Rementeriak, Bizkaiak izan duen urte borobila are borobilago egiten duena gogoratzean: Europako errugbi finalak maiatzean, The Worlds 50 Best Restaurants saria ekainean, Itzuliaren etapa irailean eta MTV sariak azaroan. Rementeriak galdu du honezkero hegaz egiteko beldurra, baina oinak zoruan ditu tinko, ohiko lanari begira, egunerokoari, gauza apartak lortzeko egin behar den horri. “Onena bidean dator beti”, iragarri du gaurko ahaldun nagusiak eta EAJ-PNVk Bizkaiko Herrialde Batzarrean 2015eko uztailetik hona daukan kargurako berraukeratua izateko aukeratu duen hautagaiak.

Ordutik hona, Bizkaian, hainbat gauza gertatu diren arren, Unai Rementeriarene biografia ez da hizki bakar batean aldatu. Mundakan, bere herrian, Mari Tereren semea izaten jarraitzen du eta, batez ere, Sabinaren loba, Kale Nagusiko Goikoa tabernako jabearena, non gaurko ahaldun nagusiak uda sasoiaren kafeak zerbitzatzeari eta egunkariak saltzeari arduratzen zen. Deustutik dabilenean ere, ez dauka ahazteko Deustuko Unibertsitatean ikasten eman zituen urteak, Luzarra kalean ikaskideekin partekatzen zuen pisua, Saioa emaztea ezagutu zueneko klaseak edo Xabier Arzallus, José Maria Lidón eta Josu Erkoreka irakasleak. Haiek guztiek markatu zioten bidea, lehenengo eta behin sektore pribaturantz, zortzi urtetan, eta ondoren politikarantz.

Bere curriculum vitae-ak agerian uzten du sektore pribatuan 8 urtez lan egin izanak eman dion eskarmentua. Rementeriak Zuzenbide Administratiboko lana egin zuen Sanz & Saiz Bulegoan (1999-2002) eta gero Ibarondo & Lamikiz Bulegoan aritu zen Zuzenbide Administratiboko abokatu gisa (2002-2007). 1999 eta 2007 urte bitartean hainbat udalentsat aholkularitza lana egin zuen Hirigintza, Ingurumen eta Zuzenbide Administratibo alorretan. 2007tik 2008ra bitartean Euskal Trenbide Sarea enpresa publikoko departamentu juridikoko abokatu izan zen eta 2008an Bizkailur sozietate publikoko (gaur egun Azpiegiturak) abokatu.

20 urte beteko dira arlo politikoan sartu zenetik. 1999an independente gisa sartu

zen Mundakako EAJ-PNVren zerrendan. Handik Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldun nagusi izatera heldu arte, politika mundua hainbat ikuspuntutatik ezagutu du. Zinegotzi eta alkate izan zen Mundakako udalean, eta ondoren izan da EUDELeko Herrialde Batzordeko kide, Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkide, Bizkaiko Batzar Nagusietan EAJ-PNVren bozeramaile eta Presidentetzako diputatu eta Bizkaiko Foru Aldundiko bozeramaile. Bizkaiko larrialdietarako eta Suhiltzaileen arduradun goren gisa hainbat katastrofetan egon behar izan zuen, besteak beste Bermeoko alde zaharraren zati bat erraustu zuen sutean eta Ondarroako lur-jausietan.

Esperientzia horietan guztietan ikasitakoak lagundu dio Rementeriarri ahaldun nagusi izaten. “Eskarmentuak lagundu egiten du erabakiak hartu behar dituzunean. Denetatik ikasten da”, esan ohi du. Andoni Ortuzar Euzkadi Buru Batzarreko presidentea aipatzen du bere erreferente politikoez galdetzen diotenean, eta ahaztu ezinen artean ditu Kepa Ormaetxea, Kepa Baba, eta Martintxu abadea, politika zainetan sartu zioten mundakarrak. “Biak ditut erreferente, herriaren aldeko konpromisoa izatea zer den erakusten zutelako, eta ezer ere ez eskatu barik. Ni herriagatik sartu nintzen politikan, nire herria hobetzeko helburuak bultzatu ninduen”.

Arrasto hori ez da sekula ezabatzen. Ahaldun nagusiak Bizkaiko pertsonak jarri ditu Aldundiaren jardunaren erdigunean. Bere agendan ere bai. Karguaz jabetu zenetik, asteko egun bat dedikatzen du Bizkaiko herrietatik ibiltzera. Bere buruarekin hartu duen konpromisoa da. Hiru urte hauetan, papera eta boligrafoa eskuan bisitatu ditu herrialdeko eskualde guztietako herriak. Berarekin egon nahi izan duten pertsona guztiekin egon da, beren kezka azaldu nahi izan dizkietenekin eta entzun nahi izan dioten guztiekin. “Jendeari entzutea, zintzotasun osoz hitz egin eta gauza onak kontatu diezazkizutela, baina batez ere txarrak edo ez hain onak. Hori da politikagintzan gehien behar dena. Batzuek gutxi hitz egin baina asko esaten dute. Beren oinetan jartzea da bakoitzaren errealitatea ulertzeko modurik onena, Bizkaiko errealitatea ulertzeko eta ahalegin guztia hobetzen jarraitzera bideratzeko. Hori da niretzat hiru urte luze hauetako gauzarik ederrena, harrotasunik handiena ematen didana”, aitortu du.

Hori dena eta langabezia Bizkaian %25 jaitea eta duela hiru urte baino 30.000 langabe gutxiago egotea lortu izana. “Horixe hitzeman genuen eta pausuz pausu aurrera egiten ari gara, oraindik egiteko asko geratzen zaigun arren”, esan du.

## **SMITHSONIAN, LEHEN EKITALDI HANDIA**

Rementeria Aldundian sartu zenean maleta eskuan zeraman Bizkaia munduko

plazan aurkezteko. Hilabete batzuk geroago, AEBra bidaiatu zen, eta han bere legealdiko lehen ekitaldi handian izan zen: Smithsonian Folklife Festibala, zeinetan euskal kultura bi astetan protagonista nagusi izan zen Washingtonen egin zen ekitaldian. Lurreratze perfektua izan zen. “Milioi bat pertsona sartu genituen Mallen, Kapitolio aurreko zabalgunean. Emaizta ikaragarria izan zen. Niretzat izan da legealdi honetako mugarririk handienetakoa. Gure lehen ekitaldia izan zen, asko lan egin genuen eta are gehiago ikasi”. Gauza guztien gainetik, aitortu du, han ikasitako leziorik garrantzitsuena izan da gauzak ez direla berez gertatzen. “Ekin egin behar zaio, gauzak gerta daitezten”, baieztatu du Rementeriak Guggenheim museoa bera eta 2017an ospatu zuen 20. urteurrena gogoan. “Guggenheim museoa da Bizkaian eta Euskadin egin ahal dugunaren erakuslerik handiena. Nazioartean daukagun enbaxadorerik onenaren 20. urteurrena ospatu dugu, munduko plazara harrotasunez ateratzeko daukagun sinboloarena”, esan du ahaldun nagusiak, doan bisitatzeko gonbidapena bidali zitzaielako, bizkaitar guztiek museoaren urtebetetzea ospatzeko aukera izan zutela gogoan. Legealdi honen beste mugarri bat. Milaka bizkaitarrek erabili zuten gonbidapen hura.

2017 urte bukaeran, Rementeriak 2018 urte ikusgarria iragarri zuen. Ekitaldiak aipatu zituen orduan: Europako errugbi finalak maiatzean, 50 Jatetxe Onenen saria ekainean, Itzuliaren etapa bat Bizkaian, inoiz egin ez den amaierarekin, eta MTV sariak. Itxura ona zeukan denak. Eta, ekitaldi horiek guztiak egin ondoren, Bizkaian MTVren musika oraindik belarrietan daukagula eta Bizkaiaren izena mundu osoan entzuten den une honetan, Rementeriak are itxura hobea hartzen dio amaitzear dagoen urteari. “Ahaztu ezin den urtea izan da. Bizkaia munduko plazan indartu da eta maila handi bat igo du gizarte gisa, herrialde gisa, Aldundi gisa, nazioarteko marka gisa, helmuga gisa, herri gisa...” azaldu du ahaldun nagusiak inoizko zoriontsuen, jendea pozik ikusten duelako. “Aurtengo protagonista handiak, ekitaldi hauetako protagonistarik handienak, Bizkaitarrak eurak izan dira”, azpimarratu du. Bihotza hunkitu zion Itzuliaren etapa hartan Bizkaia osoa bide bazterretan zegoela ikusteak, “hiru urte hauetan bizi dudan unerik gogoangarrienetakoa”; eta zur eta lur geratu zen MTV sarien galarekin eta jendeak erakutsi duen pasioarekin, Bizkaia osoan bizi den musika aste borobila eta, batez ere, urte “paregabea” are borobilago egin dutenekin.

Orain, Rementeriarik galdetzen diote hurrengo zer izango ote den, esku artean zer ote dakarren, xisteran zer ezkututzen ote duen. “Onena beti da bidean datorrena”, esan du misterio keinu batez ahaldun nagusiak. Horren goitik ibili arren, Rementeriak ez dio utzi etxeko gizon izateari. Betikoa da bera, bere etxea, bere herria, bere ohiturak, lagunekin hartzen den garagardotxo hori eta itsaso ondoan

daukan baretasuna. Itsaso ondoan ikusten du egunsentia korrika egin bitartean, sasoi onean egoteko, kezkak uxatzeko eta erlaxatzeko. “Pertsona arrunta naiz”, esan du, denborak aurrera egin ez balu bezala, ezer aldatu ez balitz bezala. Edo, ia ezer ez. Duela aste batzuk txirringa sartu du bere egunerokoan. Apurka-apurka ari da. Kontu handiz ibili behar delako. Iragarri digu iraultza datorrela txirringa gaineko mugikortasunari dagokionez, Bizkaiko mugikortasun mapa aldatuko duen kultura aldaketa dakarrela. Hori eta itsasadarraren azpiko tunela, Supersur errepidearen bigarren fasea, Nazioarteko Ekintzaitza Zentroa Bizkaia dorrean, Bizkaiaren indar ekonomiko eta finantzarioa berreskuratzeko apustua... “Asko geratzen zaigu egiteko”, nabarmendu du.

## UNAI REMENTERIA MAIZ, CANDIDATO A DIPUTADO GENERAL DE BIZKAIA

En poco más de tres años, Unai Rementeria (Mundaka, 10-08-1973) ha pasado de dejar en tierra su respeto a volar para abrir Bizkaia al mundo, para conseguir que el mundo ponga a Bizkaia por las nubes. “Hemos demostrado que Bizkaia es mundial”, dice orgulloso y feliz cuando su viaje como diputado general de Bizkaia hace escala en un lunes que podría ser un lunes cualquiera, pero no lo es. Es el lunes después de los premios MTV, de la resaca musical que ha hecho bailar a toda Bizkaia durante una semana. “Bailar y sonreír. Estoy feliz por ver a tanta gente feliz”, matiza Rementeria sobre lo que califica como “la guinda” a un año increíble para Bizkaia: finales europeas de rugby en mayo, premios The Worlds 50 Best Restaurants en junio, la etapa de la Vuelta en setiembre y los premios MTV en noviembre. Rementeria le ha perdido el miedo a volar, pero sigue con los pies anclados al suelo, aferrado al trabajo ordinario, el día a día, para conseguir cosas extraordinarias. “Lo mejor siempre está por llegar”, anuncia el diputado general, ratificado por la Asamblea Territorial de Bizkaia de EAJ-PNV como candidato a la reelección del cargo que ostenta desde julio de 2015.

Pese a que desde entonces han pasado muchas cosas en Bizkaia, la biografía de Unai Rementeria continúa intacta. En Mundaka, su pueblo, sigue siendo el hijo de Mari Tere y, sobre todo, el sobrino de Sabina, la dueña del bar Goikoa de la calle Mayor donde el ahora diputado general se encargaba de servir cafés y vender periódicos en verano. Y no hay día que al caminar por Deusto no recuerde su época de estudiante de Derecho en la Universidad de Deusto y traiga a la memoria el piso que compartía en la calle Luzarra, el piso de estudiantes en el que vivió después, las clases en las que conoció a Saioa, su mujer, o a profesores como Xabier Arzallus, José María Lidón o Josu Erkoreka, que le marcaron el camino, primero, hacia el sector privado, donde estuvo ocho años, y, después, hacia la política.

Su currículum refleja ocho años de experiencia en el sector privado. Ejerció como letrado de Derecho Administrativo en el bufete Sanz & Saiz Abogados (1999-2002) y después en el bufete Ibarondo & Lamikiz, como abogado especialista en Derecho Administrativo (2002-2007). Entre 1999 y 2007 asesoró a varios ayuntamientos en materia de Urbanismo, Medio Ambiente y Derecho Administrativo. De 2007 a 2008 fue letrado del departamento jurídico de la empresa pública Eusko Trenbide Sarea (ETS) y en 2008, de la sociedad pública Bizkailur (hoy Azpiegiturak).

De su primera experiencia política se cumplirán 20 años en 2019. Desde que en

1999 integró como independiente la candidatura de EAJ-PNV de Mundaka a la legislatura al frente de la Diputación Foral de Bizkaia, Rementeria ha conocido la política desde diferentes perspectivas. Ha sido concejal y alcalde en el Ayuntamiento de Mundaka, miembro de la Junta Territorial de Eudel, parlamentario en el Parlamento Vasco, portavoz del grupo de EAJ-PNV en las Juntas Generales Bizkaia y diputado de Presidencia y portavoz de la Diputación Foral de Bizkaia. Y estuvo en primera línea, por su condición de responsable del sistema de emergencia y de Bomberos de Bizkaia, en catástrofes como el incendio que arrasó buena parte del casco histórico de Bermeo o en el desprendimiento de Ondarroa.

Un poco de cada una de esas vidas, de esa experiencia, ha ayudado a Rementeria a ser diputado general. “La experiencia ayuda a la hora de tomar decisiones. De todo se aprende”, dice. Y de todos. No duda al señalar a Andoni Ortuzar, presidente del Euzkadi Buru Batzar, como su referente político. Y guarda un recuerdo imborrable de Kepa Ormaetxea, Kepa Baba, y el cura Martintxu, dos mundakarras que le metieron la política en las venas. “Para mí han sido dos referentes porque eran gente que aportaba compromiso por el pueblo sin pedir nada a cambio. A mí la política me gana por el pueblo, por intentar mejorar tu pueblo”.

Ese poso no se borra. El diputado general ha puesto a las personas de Bizkaia en el centro de la actividad de la Diputación. Y de su agenda. Desde que asumió el cargo, dedica un día a la semana a ‘patear’ Bizkaia. Es un compromiso consigo mismo. En estos tres años ha visitado sin más compañía que un papel y un bolígrafo pueblos de todas las comarcas del territorio. Ha estado con todas las personas que han querido estar con él, que han querido contarle y que han querido escucharle. “Escuchar a la gente, que te hablen con sinceridad y te cuenten las cosas buenas, pero, sobre todo, las malas o las menos buenas es lo más necesario de la política. Hay gente que habla poco y dice mucho. Ponerse en sus zapatos es la mejor forma de entender la realidad de cada uno y cada una y la realidad de Bizkaia, y de enfocar todo el trabajo para seguir mejorando. Es una de las cosas de estos más de tres años de las que más orgulloso estoy”, confiesa.

Eso, y haber conseguido que el desempleo baje un 25% en Bizkaia, que haya cerca de 30.000 parados menos que hace tres años. “Nos comprometimos a eso y vamos avanzando, aunque todavía nos queda mucho por hacer”, dice.

## SMITHSONIAN, EL PRIMER GRAN EVENTO

Rementeria entró en la Diputación con la maleta en la mano para abrir Bizkaia al mundo. Unos meses después, embarcaba rumbo a Estados Unidos y al primer gran evento de su legislatura: el Smithsonian Folklife Festival en el que la cultura vasca fue protagonista en Washington durante dos semanas. Fue un aterrizaje perfecto. “Metimos a un millón de personas en el Mall, en la explanada del Capitolio. El resultado fue brutal. Para mí, uno de los hitos más importantes de la legislatura. Fue nuestro primer gran evento, trabajamos mucho y aprendimos mucho más”. Sobre todas, confiesa, posiblemente la lección más importante sea que las cosas no pasan solas. “Hay que hacer que pasen”, asegura Rementeria, que tiene al Guggenheim y los 20 años que el museo celebró en 2017 como icono de esa lección. “El Guggenheim es el mejor ejemplo de lo que somos capaces en Bizkaia, en Euskadi. Haber podido celebrar 20 años de nuestro mejor embajador internacional, de un símbolo de apertura al mundo y de orgullo”, dice el diputado general, especialmente feliz porque todos los vizcaínos y todas las vizcaínas pudieron celebrar el cumpleaños del museo con una invitación para visitarlo gratis, otro hito de la legislatura. Miles de ellos la usaron.

A finales de 2017, Rementeria anunció un 2018 espectacular para Bizkaia. Citó los eventos: las finales europeas de rugby en mayo, la gala de los 50 Best Restaurants en junio, una etapa de la Vuelta en Bizkaia con final inédito y los premios MTV. Sonaba bien. Y una vez pasado, cuando aún resuena la música de la MTV en Bizkaia y Bizkaia suena en todo el mundo, a Rementeria le parece aún mejor. “Ha sido un año inolvidable. Bizkaia ha reforzado su posición internacional y ha subido un escalón a muchos niveles: como sociedad, como territorio, como Diputación, como marca internacional, como destino, como orgullo colectivo...”, argumenta el diputado general, más feliz quizás por ver a la gente feliz. “Los grandes protagonistas de este año, de todos estos eventos, han sido las personas de Bizkaia”, insiste. Le atrapó ver a Bizkaia entera asomada a la cuneta en la etapa de la Vuelta, “uno de los momentos más bonitos que he vivido estos tres años”; y le impactó la gala de los premios MTV, la entrega de la gente, la guinda a una semana apasionante de música en toda Bizkaia y, sobre todo, a un año “espectacular”.

Ahora, a Rementeria le preguntan por qué será lo siguiente, qué se trae entre manos, qué tiene en la chistera. “Lo mejor siempre está por venir”, responde enigmático el diputado general, que no ha dejado de ser un hombre de su casa, de su pueblo, de sus costumbres, la cervecita con los amigos, y su calma pegada al

mar donde sigue viendo amanecer mientras corre para mantenerse en forma, para evadirse y relajarse. “Sigo siendo una persona normal”, repite como si el tiempo no hubiera pasado y nada hubiera cambiado. O casi nada. Hace unas semanas que introdujo en su vida una bicicleta. Va poquito a poco. Por lo que pueda venir. Ya ha anunciado una revolución en la movilidad a pedales, un cambio de cultura que cambiará el mapa de la movilidad en Bizkaia. Eso y el túnel bajo la ría, la segunda fase de la Supersur, el Centro Internacional de Emprendimiento en la torre Bizkaia, su apuesta por recuperar el espacio económico y financiero de Bizkaia... “Queda mucho por hacer”, insiste.